

DOSIER DE PRENSA 2012 PRENTSA DOSIERRA

Hemen aurkituko duzue 2012. urtean zehar Bidelaguni buruz ateratako berriak.

Aquí encontraréis las noticias publicadas sobre Bidelagun a lo largo del año 2012.



Elkarizaneko boluntarioen kanpaina baten irudia, Berako Lurraren Egunean.
GIZARTEA

Baztan-Bidasoaldeko boluntarioen topaketa egingen da martxoaren 27an Beran

Bidelagun eta Elkarrian taldeetako boluntarioek esperientziak konpartitzeko bilkura izanen da Beralandetan

Eskualdea | 2012-03-26 | 07:39 | Testua: TTIPI TTAPA | Argazkia: Utzitako argazkia

Martxoaren 27an, astearte arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitarte, Baztan, Bortzirriak eta Malerrekako boluntarioen topaketa egingen da Berako Beralandetan. Bidelagun eta Elkarizaneko boluntarioak, elkarren arteko esperientziak konpartitzeko bilkura izanen da.

Bidelagun eta Elkarrian, formazio arloan koordinatzen dira, eta pausu bat gehiago emateko asmoarekin, astearterako topaketa antolatu dute. Azalpen bat prestatu dute Boluntariotzaren inguruan exposizio bat egiteko, eta ondoren mahai borobil bat osatuko dute. Helburua, boluntarioak elkarren artean ezagutzea eta beraien esperientziaz solastea: zailtasunak, erreztasunak, aportazioak....

Bi taldeen arteko elkartasuna/kohesioa bultzatu nahi da, eta etorkizuneko elkarlana bultzatu nahi da, batez ere, sentsibilizazioaren arloan. Ondoren merendu bat egingen dute.



Bidelagun eta Elkarrizanekeo boluntarioak eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko teknikariak, martxoaren 27an Beralandetan egin zen topaketan.

GIZARTEA

Baztan-Bidasoaldeko boluntarioen topaketa egin zen martxoaren 27an Beran

Bidelagun eta Elkarrizan taldeetako boluntarioek esperientziak konpartitu zituzten Beralandetan

Bera | 2012-03-28 | 14:31 | Testua: TTIPI TTAPA | Argazkia: Utzitako argazkia

Baztan, Bortziriak eta Malerrekako boluntarioen topaketa egin zen Berako Beralandetan martxoaren 27an, astearte arratsaldean. Bidelagun eta Elkarrizanekeo 30 bat boluntario bildu ziren eta elkarren arteko esperientziak konpartitu zituzten.

Hasteko, Bolondresen Legea azaldu zuten, boluntarioek nola jokatu behar duten eta beraien eskubide eta betebeharren berri izan zezaten. Alderdi praktikoan, bi boluntario taldeek Baztanen eta Bortzirietan egiten duten lanaren berri eman zuten, bertzeak bertze zahar etxeetan eta etxeetan laguntzea, helduen alfabetizazioa, ospitalera laguntzea, haur ttikiei eskola laguntza... Esperientzia hauek sortzen dituzten zailtasunak, satisfakzioak, zalantzak eta beldurrak ere aipatu zituzten, baita hobetzeko proposamenak landu ere.

Topaketaren balorazio positiboa egin dute bai Bidelagunek, bai Elkarrizanekeo, baita Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ere. Etorbizunean, bi talde hauek elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dute eta alde horretatik, Bidelagunek gonbidapena luzatu zuen apirilaren 26an Elizondon eginen den formakuntza saioan parte harteko. Bortzirietako boluntarioek parte hartuko dutela jakinarazi zuten.

BAZTAN-BORTZIRIAK



Los voluntarios de la comarca comparten experiencias en Bera

BIDELAGUN HA INVITADO A ELKARRIZAN A LA ACTIVIDAD FORMATIVA QUE HA ORGANIZADO PARA EL PRÓXIMO 26 DE ABRIL EN ELIZONDO. MIEMBROS DE BIDELAGUN Y ELKARRIZAN SE CONOCIERON EN BERALANDETA

01.04.12 - 02:06 -

ALICIA DEL CASTILLO | BERA.

Voluntarios de la comarca, miembro de dos asociaciones de voluntariado de Baztan-Bidasoa como son Bidelagun, que actúa principalmente en Baztan y Malerreka, y Elkarrizan, con ámbito de actuación en Bortziriak, se reúnan esta semana en Bera para compartir experiencias.

Unas 30 personas participaron en el encuentro que se desarrolló en Beralandeta. Para comenzar realizaron una exposición sobre la Ley del Voluntariado, desde su definición, pasando por las motivaciones, funciones, derechos y deberes.

«Quisimos comenzar con una exposición teórica, que le diera marco a nuestra actuación, donde las personas voluntarias pudieran comprobar cómo se debe de actuar, cuáles son sus derechos, obligaciones.», explican los organizadores. A continuación pasaron a la parte práctica del encuentro. En ella enumeraron los diferentes tipos de voluntariado que realizamos en Baztan y en Bortziriak. En la comarca, ambas asociaciones realizan acompañamientos en centros residenciales, en domicilio y también en actividades de ocio a personas con discapacidad. También llevan a cabo labores de alfabetización de personas adultas, apoyo escolar a menores, acompañamientos hospitalarios, servicios de transporte o de desplazamiento... Todos compartieron sus experiencias, narrando las dificultades con las que se encuentran, pero también las satisfacciones, las estrategias... y surgieron además propuestas de mejora en coordinación, apoyo y seguimiento. La labor de los voluntarios no está exenta de dudas y miedos. Desde la Mancomunidad de Servicios Sociales de Bortziriak, organizadora del encuentro junto a ambas asociaciones, se realiza una valoración positiva de la jornada.

Más servicios

Y recalcan que «desde los Servicios Sociales, gracias a las personas voluntarias, podemos realizar una labor comunitaria y dentro de las prestaciones, como servicio de ayuda a domicilio, dependencia, minusvalía, teléfono de emergencia., hemos ampliado nuestra cartera, con el servicio de voluntariado». Desde la Mancomunidad han percibido que «uno de los mayores déficits sociales en la actualidad es la soledad de las familias. Para hacerle frente a esa soledad, hasta ahora recurríamos al Servicio de Ayuda a domicilio, en horarios de mañana. Ahora lo podemos ampliar con el servicio de voluntariado». Señalan que esta labor se se puede realizar «gracias a entidades como Elkarrizan y Bidelagun, y a la coordinación con los Servicios Sociales». Ambas han confirmado la intención de trabajar coordinadamente y realizar en el futuro actividades conjuntas. Además, Bidelagun, invitó a los voluntarios de Elkarrizan a la sesión formativa que va a realizar el 26 abril en Elizondo.

BAZTAN

Taller sobre 'Resolución de situaciones difíciles con personas mayores'

17.04.12 - 03:15 -
A.D.C. | BAZTAN.

La asociación de voluntariado Bidelagun ha organizado para esta primavera un taller gratuito titulado 'Resolución de situaciones difíciles con personas mayores: estudio de casos', impartido por Mirentxu Goienetxe y Ainhoa Arburua . El taller de tres horas, está abierto a personas voluntarias, cuidadores de mayores, trabajadores de Residencias, a Domicilio, de la Salud y familias. Se llevará a cabo el 26 de abril en la sede de Bidelagun, situada junto al Centro de Salud de Elizondo. El taller comenzará a las 17.00 h. Inscripciones en el 948.581327 ó bidelagun@hotmail.com.

GIZARTEA

Adineko pertsonekin sor daitezkeen egoera zaileen inguruan doako lantegia antolatu du Bidelagunek

Apirilaren 26an egingen da Elizondon, baina hilaren 20a baino lehen eman behar da izena

Eskualdea | 2012-04-17 | 07:58 | Testua: TTIPI TTAPA

Egoera zailen konponbidea adineko pertsonekin: kasu azterketak. Izenburu horixe du Bidelagun elkarteak antolatu duen ekimenak. Hiru orduko lantegia da, eta boluntarioei, adineko pertsonen zaintzaileei, zahar etxeetako langileei, etxez-etxeko langileei, Osasun Etxeko langileei eta, orokorrean, familiei zuzendua dago.

Ikastaroa apirilaren 26an izanen da, ortzegunarekin, Elizondoko Bidelagun elkartearen egoitzan, 17:00etatik 20:00etara. Mirentxu Goienetxe eta Ainhoa Arburua izanen dira hizlariak.

Interesatuak ortziral hau, apirilak 20, izanen dute izena emateko azken eguna. Horretarako 948 591327ra deitu behar dute edo bidelagun@ hotmail.com helbide elektronikora idatzi. Dohainik da.

Doluaren inguruko tailerra

Baztan | 2012-05-30 | 15:13 | Testua: TTIPI TTAPA

Dolua: boluntarioarentzako laguntza jarraibideak izenburupean lantegi bat antolatu du Bidelagun elkarteak asteazken honetarako, maiatzak 30. Ordu bateko tailerra izanen da eta Mirentxu Goienetxe eta Ainhoa Arburuak eskainiko dute Bidelagunen egoitzan, 17:00etan.

Bildu. Berripaper Elektronikoa.

Ekainaren 4'ean.

IRURITAKO SAGUES FUNDAZIOA

Iruritako Apote auzoan Sagues fundazioaren jabegoko solairu bakarreko sei bizitza daude bakoitza bere baratzearekin. Bizitza horiek herriko seme batek udalari eta herritarrei egindako ekarpena izan zen, ezinean ziren familiak laguntzeko; horretarako aipatu fundazioa sorrarazi zuen eta bertako patronatuko kide Baztango alkatea, Iruritako alkatea, udalean egon daiketen zinegotzi iruritarra –dagoelarik- eta

herriko apaiza egin zituen. Bidelagun laguntza emailere taldearen eskari bati jarraikiz, aipatu etxeen kudeaketa guztiz desitxuraturik dagoela ikusi dugu eta, horregatik, orain horien erabilera zehaztu eta egiazki behar diren jendeak laguntzeko irizpideak jarriko dira. Horrela alde batetik premia egoera Nafarroako Gobernuaren irizpideen arabera zehaztuko da eta, gainera, Baztango zerbitzu sozialetako teknikariaren txostena beharko da. Horretaz gain, Fundazioko sorrerako irizpideei jarraiki, iruritarrek lehentasuna izanen dute eta ondotik, gainerako baztandarrek. Bertalde sei etxe horietako bat Bidelagun elkarteari utziko zaio harrera etxe gisa erabili dezan. Bidelagunek orain artio Elizondon zuen harrera etxea utzi behar izan du Nafarroako Gobernuaren murrizketengatik ez duelako ordaintzen ahal. Halaber etxe horietako bertze bat premia kasuetarako hutsik kontuko du udalak, hau da, bazterketa sozial kasu larrietarako, indarkeria matxista kasuetarako edo horrelako ustekabeko kasuetarako. Etxe horietako egoiliarrek fundazioko estatutuetan heldu den gisan, baina orain artio egin ez den moduan, hilabetero, bizitzen mantentzeko zerbaite ordaindu beharko dute. Modu berean, Bidelagunekin hitzarmena egingen da.

Ttipi-Ttapa 2012-07-05.



Hilabeteko lehen asteartetan, arratsko 20:00etatik 22:00etara doan hartuko dute errekurtsoko gutien duen jendea Elizondoko Jaimerena ileapaindegian.

GIZARTEA

Errekurtsoko guti duen jendearekin ilea apaintzeko aukera emanen dio Elizondoko Jaimerena ileapaindegia

Bidelagun elkartek bideratuko ditu "bezeroak" hilabeteko lehen asteartetan



Elizondo | 2012-07-05 | 09:01 | Testua: TTIPI TTAPA | Argazkia: Juan Mari Ondikol

Bidelagun elkartearen bidez Elizondoko Jaimerena ileapaindegian egingen duten kanpainaren berri eman zuten uztailaren 3an. Lan orduetatik kanpo eta doan, errekurtsoko guttien duen jendearekin ilea mozteko eta apaintzeko aukera emanen diote, hilabeteko lehenbiziko asteartetan.

Mikel Jaimerena pelukeroak erran digunez, «hainbertze urtez hemengo jendearekin esker bizitzen ari gara eta okurritu zitzaigun zerbaite egiten ahal genuela hori konpentsatzeko, gaur egun bizi dugun momentu txarra dela eta gaizki pasatzen ari den jendea laguntzen ahal genuela eta Bidelagun elkartearekin solastu eta adostu genuen kanpaina hau abiatzea. Azkenean, hilabetearen egun bat beraiendako lanean arituko gara, lan ordu normalak akitu eta pare bat orduz, doan».

Pertsona hauek ileapaindegiko zerbitzu guztiak eskura izanen dituztela garbi utzi nahi du Jaimerenak: «Bertze edozein bezero bezala hartuko ditugu eta nahi duten hura eginen diegu. Normalean 20:00etan ixten dugu, baina ordu horretatik aitzinera datorren jendea hartuko dugu. Nahi duenak ilea moztu, moztuko diogu; kolorea eman nahi duenak kolorea eman, orraztu... Beraientzako ere, momentu txar hori arintzeko eta pittat alaitzeko modua izaten ahal da ileapaindegitik guapo-guapo ateratzea. Bidelagun elkartearen bidez bideratuko dute jendea. Guk bi orduz lau gizon eta bizpahiru emakume hartzen ahal ditugula erran genien eta eurek bideratuko dute jendea».

Mikel Jaimerenarentzat elkartasuna adierazteko modu bat da eskaintza hau, «guretako laguntza emateko modu bat da, zerbait emozionala, laguntza emanez ongi sentitu nahi dugu. Hilabetean bi ordu gehiago aritzea bertzerik ez da guretako eta horrekin laguntzen ahal badugu eta jendea pixko bat alaitsuago ikusi, satisfakzione bat da», jakinarazi digu.

Mikel Jaimerenarekin batera, Maite Jaimerena arreba eta Haizea Errandonea aritzen dira ileapaindegian lanean.

Diario de Noticias.

para gente en difícil situación

Peluquería Jaimerena y Bidelagun organizan un corte de pelo solidario

Los hermanos propietarios mikel y maite jaimerena atienden un día al mes a gente en difícil situación

lander santamaría - Sábado, 14 de Julio de 2012 - Actualizado a las 05:08h



Mikel, María José Mortalena e Isidro (Bidelagun), Maite y Haizea, en el primer día solidario. (Ondikol)

elizondo. La idea partió de los dos hermanos Maite y Mikel, propietarios de Jaimerena Ileapaindegia, la peluquería de Elizondo en la que siguen la profesión que heredaron de su padre y tío Hilario y Julián, al observar lo difíciles que están los tiempos y con el deseo de

"aportar nuestro grano de arena a ayudar a la gente". Se lo plantearon a la asociación Bidelagun de voluntariado y solidaridad que trabaja de forma muy activa en la comarca, y dicho y hecho: un día al mes dedicado a cortar o arreglar el pelo a las personas que se encuentren en delicada situación económica.

Y ya están metidos en plena faena, un martes por la tarde, a la hora de cierre, Maite y Mikel, y su empleada Haizea Errandonea, continúan su labor pero lo hacen *gratis et amore*, sin percibir cantidad alguna y en ayuda de quien lo necesite. "La satisfacción de las personas que están utilizando el servicio es nuestro mejor pago, ver su rostro feliz reflejado en el espejo", explica Mikel. Como todos, han cambiado impresiones con la gente sobre los problemas que está acarreado la crisis económica, que también la han percibido en su establecimiento, y decidieron echar un cable.

A Isidro Herguedas, coordinador de Bidelagun, la iniciativa le parece "estupenda, muy de agradecer porque sólo desde la solidaridad conseguiremos salir adelante". Isidro es, como muy pocos, uno de los que más está al tanto y mejor conoce la delicada situación que atraviesa la sociedad, también a orillas del Bidasoa, permanentemente en contacto con los más humildes y necesitados y con los inmigrantes.

A Mikel, Maite y Haizea, como indica el primero, "en definitiva no nos cuesta nada, un poco más de tiempo y de trabajo al mes y pensamos, como hemos podido comprobar, que hay gente a la que le viene bien; ellos contentos y nosotros, pues también". Los dos hermanos cumplen precisamente estos días doce años con la peluquería en su actual emplazamiento de la calle Santiago, cerca de la iglesia parroquial y en pleno centro de Elizondo, desde que abrieron en unos días próximos a las fiestas.

Su iniciativa, en el Valle de Baztan, es una novedad que ha sido muy bien acogida y que por ahora tendrá continuidad hasta que se vea que las cosas empiezan a mejorar. El número de desempleados en el valle supera las 300 personas, la más elevada jamás conocida, de una población total de 8.000 y una activa de unas 3.600 personas, de ellas bastantes aunque no una cifra muy significativa de inmigrantes que lo están pasando también muy mal.

Y para poner su "granito de arena", los primeros de cada mes serán los *martes solidarios* de Mikel, Maite y Haizea, y los dedicarán a llevar adelante su campaña. Una iniciativa que, como es de suponer, en Bidelagun se acogió con satisfacción y entusiasmo y que es todo un ejemplo en un tiempo más que cruel

Diario de Noticias.

Los organismos sociales del Valle de Baztan sufren serios apuros a causa de los recortes

La renta de inserción social sólo se ha concedido a 20 de los 52 solicitantes

Las ayudas al cuidado de mayores o discapacitados se han reducido hasta el 66%, y no se dan para camas especiales

lander santamaría - Jueves, 11 de Octubre de 2012 - Actualizado a las 05:09h



Paisaje urbano de Elizondo.

Los distintos organismos sociales que prestan servicios en el Valle de Baztan, algunos de ellos de carácter comarcal, y que en muchas ocasiones complementan o suplen los que no atienden las instituciones o la Seguridad Social, se están viendo seriamente afectados y con graves problemas para mantener su actividad por causa de los recortes económicos.

elizondo. Organizaciones como Bidelagun, Cocemfe, Afina, Anasaps-Dizdira, Xauli, Tasubinsa y otros que trabajan el campo de la inmigración, la atención a discapacitados físicos y mentales, o que atienden las llamadas enfermedades raras, se han visto obligados a reducir personal y a limitar sus prestaciones a los casos más urgentes y delicados, hasta el punto de que ven muy complicada su continuidad.

La situación de estas entidades de solidaridad, que muchas veces subsisten en el aspecto humano gracias al voluntariado pero que necesitan ayudas para materiales, se denunció días pasados desde el Ayuntamiento de Baztan que, por cierto, señaló que también ha visto recortadas las ayudas en un 50% en materia de empleo protegido y ha reducido en la misma proporción, de 8 a 4, el número de personas contratadas. Igualmente, el Ayuntamiento de Baztan había planteado actividades en el campo de la inmigración y presentó un proyecto valorado en 38.000 euros al Gobierno de Navarra, pero se le informó que las ayudas destinadas a estas actividades iban a desaparecer y tuvo que suspenderlo.

La renta de inserción social que reciben las familias que han agotado todas las prestaciones y cubre las necesidades más básicas, sufre un retraso hasta de 5 meses en su tramitación lo que supone que los posibles beneficiarios no disponen de ningún ingreso en ese tiempo. En un principio se tramitaron 52 solicitudes pero al anularse ayudas a los sin papeles y a lo que han cobrado durante dos años, en la actualidad solo son 20 las personas de Baztan que la perciben.

Las ayudas a personas dedicadas al cuidado de mayores o discapacitados también se han reducido hasta el 66% en los casos más graves, y han desaparecido las destinadas a ayudas técnicas como para adquirir camas especiales y similares. Y también han desaparecido las subvenciones a padres y madres con recién nacidos o por tercer hijo.

La información recogida desde el Ayuntamiento sobre consecuencias que en 2012 han acarreado los recortes a entidades humanitarias y de voluntariado tiene tintes dramáticos en varios casos. Así, Tasubinsa-Poskonea, que tiene talleres para discapacitados mentales en Elizondo, está recibiendo ayudas con retrasos de hasta 6 meses, y Eguzkilore, de mujeres voluntarias, está en idéntica situación.

Y Cocemfe, en el campo de enfermedades raras que no contempla la sanidad o se prestan sólo en Pamplona, se ha visto obligada a reducir sus trabajadores de 4 a 1 y la periodicidad de sus desplazamientos a Elizondo. En Xauli que desarrolla su labor en el ocio para discapacitados ven que la convocatoria de ayudas ni se ha publicado, y Bidelagun observa que las ayudas al voluntariado se han reducido, las condiciones se han endurecido y es más difícil conseguirlas y los retrasos llegan a los 5 ó 6 meses.

IRURITA

Bidelagun va a presentar mañana el segundo vídeo de 'La Memoria de Nuestros Mayores'

08.11.12 - 01:13 -
Z. IBARROLA | IRURITA.

La Asociación Bidelagun, Laguntza Emaile Taldea presenta mañana en la casa palacio Jauregia de Irurita el segundo vídeo del proyecto 'La Memoria de Nuestros Mayores' y que llevará por título: 'Zaharreak berria bilatzen eta berriak betikoa'. Cabe recordar que hace un año y medio fue presentado el primero de ellos: 'Eguzkia Lainoan', que recogía la visión de la mujer en el mundo rural. En este nuevo trabajo son varias las personas de Baztan y Urdazubi que aparecen contando historias de vida, experiencias, modos de vida, etcétera.

La presentación de mañana, irá acompañada de una exposición de fotos antiguas de Baztan organizada gracias al archivo que Foto Mena posee y que desinteresadamente colabora en el proyecto junto con la Asociación Dorrea que colabora en la difusión del patrimonio cultural de Baztan.

El acto consistirá en la presentación del proyecto, la explicación de los objetivos de la elaboración del vídeo y el visionado del mismo, además de una pequeña charla con los protagonistas y participantes y la citada exposición fotográfica. Posteriormente el vídeo y la exposición circularán por todos los pueblos de Baztan.

Diario de Noticias

Bidelagun presenta en Irurita el segundo vídeo de su proyecto "La memoria de nuestros mayores"

N.p. - Jueves, 8 de Noviembre de 2012 - Actualizado a las 05:13h

La asociación de solidaridad Bidelagun presentará mañana en Irurita (Palacio Jauregia, 19 horas) el segundo vídeo de su proyecto *La memoria de nuestros mayores*, que lleva por título *Zaharreak berria bilatzen eta berriak betikoa* y continúa con la recogida de testimonios y vivencias de la sociedad rural. En este trabajo son varias las personas de Baztan y Urdazubi que cuentan sus historias de vida, experiencias y usos, y la presentación se acompaña de una exposición de fotos antiguas de Baztan organizada gracias al archivo que posee Foto Mena y que desinteresadamente colabora en el proyecto junto con la asociación Dorrea en la difusión del patrimonio cultural de Baztan. En la sesión de mañana se presentará el proyecto de Bidelagun, se explicarán los objetivos de la elaboración y se verá el vídeo, y se mantendrá una charla con los protagonistas y participantes.

KULTURA

‘Zaharreen berria bilatzen eta berrian betikoa’ bideoaren aurkezpena azaroaren 9an Iruritako Jauregia etxean

Baztango argazki zaharren erakusketa ere antolatu dute



Irurita | 2012-11-07 | 12:42

Adineko pertsonen memoria biltzeko lanean dihardu Bidelan, Laguntza Emaile taldeak. Duela urte eta erdi ‘Eguzkia Lainopean’ bideoa aurkeztu zuten. Ortziralean, bigarren bideoaren aurkezpena egingen dute Iruritako Jauregia etxean arratsaldeko 19:00etatik aurrera. “Zaharreen berria bilatzen eta berrian betikoa” izenburua du bideoak. Bertan, Baztan eta Urdazubiko zenbait gizon-emakumeen bizipen eta istorioak jasotzen dituzte. Proiektuaren nondik norakoak aurkeztu, bideoaren helburuak zeintzuk diren jakin eta partehartzaileen hitzak entzuteko aukera izanen dute aurkezpenera joaten direnek. Baina ez hori bakarrik, Foto Menaren artxiboari eta Dorrea elkarteari esker, Baztango argazki zaharren erakusketa txiki bat ere antolatu baitute. Iruritako bideo emanaldi eta erakusketa hau, bertze herrietan ere ikusteko aukera izanen da. Proiektua Baztango bertze herrietara ere zabaltzeko asmoa baitute.

EGITARAUA:

Azaroak 10-14 Elizondo-Elbete.

Arizkunenea 18:00- 20:00.

Azaroak 12. Almandoz. 18:00. Batzarretegian

Azaroak 13. Berroeta.

Azaroak 14. Aniz.

Azaroak 15. Ziga.

Azaroak 16. Oronoz.

Azaroak 19. Arraioz.

Azaroak 20. Lekaroz.

Azaroak 21. Arizkun.

Azaroak 22. Erratzu.

Azaroak 23 Azpilkueta.

Azaroak 26 Amaiur.

Azaroak 27. Urdazubi.



Zaharreen berria bilatzen
eta berria betikoa



FOTOMENA ELIZONDO

FOTOMENA ELIZONDO

desde 1887 tik

PRESENTACIÓN DEL VÍDEO. BIDEOAREN ERAKUSKETA.
EXPOSICIÓN FOTOGRÁFICA. ARGAZKI ERAKUSKETA.

NOIAZPIRE / AZARUA

8.	Irants, Juanjo	18:00
10-14	Elizondo-Beoz, Amakueko	18:00-18:30
12.	Alexandru	18:00
12.	Demanda	18:00
14.	Aita	18:00
15.	Zigu	18:00
16.	Oroneta	18:00
19.	Arriola	18:00
20.	Lalorua	18:00
21.	Arribu	18:00
22.	Orreaga	18:00
23.	Appliveta	18:00
24.	Astiaz	18:00
27.	Urteabai	18:00

Diruzketa, Diruzketa



Ttipi-Ttapa.



Iruritan, pasa den ortzirean egin zuten 'Zaharreen berria bilatzen eta berria betikoa' bideoaren aurkezpena.
GIZARTEA

'Zaharreen berria bilatzen eta berria betikoa' bideoa eta argazki erakusketa herriz herri

Iruritan azaroaren 9an aurkeztu eta orain azaroaren 26ra arte, Baztan eta Urdazubiko herrietan ikusteko aukera

Eskualdea | 2012-11-12 | 10:06

Ortiziralean, Iruritako Jauregia etxean egin zuten aurkezpen ekitaldia. Jende aunitz bildu zen Bidelan, Laguntza Emailde taldearen ekimenaren berri izatera. 'Zaharrea berria bilatzen eta berria betikoa' lanean Baztan eta Urdazubiko zenbait gizon-emakumeen bizipen eta istorioak jasotzen dituzte. Horretaz gain, Foto Menaren artxiboari eta Dorrea elkarteari esker, Baztango argazki zaharren erakusketa txiki bat ere antolatu dute. Orain Urdazubi eta Baztango bertze herrietan ere bada emanaldiaz gozatzeko aukera. Urriaren 26ra bitarte, astez, herri desberdin bat bisitatuko baitu bideo eta argazki erakusketak. Dagoeneko Elizondon dago ikusgai eta gaur arratsaldean Almandozen eginen du geldialdia.

Datozen emanaldiak:

Azaroak 10-14. Elizondo-Elbete. Arizkunenea Kultur Etxean, 18:00-20:00

Azaroak 12. Almandoz. 18:30etan Futbolinean

Azaroak 13. Berroeta. 18:30etan. Batzarretegian.

Azaroak 14. Aniz. 18:00etan. Elkartean.

Azaroak 15. Ziga. 19:30etan. Elkartean.

Azaroak 16. Oronoz. 18:00etan. Oronozko Batzartokian.

Azaroak 19. Arraioz 18:00etan. Elkartean.

Azaroak 20. Lekaroz. 18:00etan

Azaroak 21. Arizkun. 18:00etan. Elkartasuna •Elkartean.

Azaroak 22. Erratzu. 19:00etan. Elkartean.

Azaroak 23 Amaiur. 18:00etan. Otsondo Elkartean.

Azaroak 26 Urdazubi. 18:00etan

Bidelagun lleva el vídeo 'Zaharrea berria bilatzen' a todo el valle

Martes, 13 de Noviembre de 2012 - Actualizado a las 05:11h.



ELIZONDO. La asociación de solidaridad Bidelagun presentó en Jauregia de Irurita el vídeo *Zaharrea berria bilatzen*, un nuevo trabajo que recoge historias y experiencias vitales de los mayores. El documental se acompaña de una exposición de fotos antiguas del archivo centenario de Foto Mena y la colaboración de la asociación de Patrimonio Dorrea, y recorrerá todo el Valle de Baztan, pueblo a pueblo. Hasta mañana está en Arizkunenea para Elizondo y Elbete, mañana estará en Berroeta; pasado, en Aniz; y seguirá en días sucesivos por Ziga, Oronoz, Arraioz, Lekaroz, Arizkun, Erratzu, Azpilkueta, Amañur y Urdazubi. **FOTO: ONDIKOL**

BERRIA

2012-11-27

Ile apainketa, musu truk

Bidelagun elkarteak bideratuta, baliabiderik gabe edo urri dabiltzan baztandarrei ilea doan moldatzen diete hilabetean behin Elizondoko Jaimerena ile apaindegian.

IRENE ARRIZURIETA ELIZONDO



Jaimerena ile apaindegiko langileak eta Bidelagun elkarteko ordezkariak egitasmoaren aurkezpenean. / ONDIKOL / DIARIO DE NOTICIAS

Baliabidez urri dabilen jendeari ilea mozteko eta apaintzeko aukera eskaintzen diete Elizondoko (Nafarroa) Jaimerena ile apaindegian, hilabeteko lehendabiziko asteartean. Ibarrean behartsuekin lan egiten duen Bidelagun elkarteak bideratzen dizkie bezeroak. Gaizki dabilen jendea laguntzeko modua dela dio Mikel Jaimerenak, Jaimerena ile apaindegiko jabeak.

Krisi ekonomikoak gero eta jende gehiago ukitzen duen garaiotan, bada elkartasuna adierazteko eta laguntza emateko prest den jendea. Horren adibide dira Elizondoko Jaimerena ile apaindegian lan egiten duten hiru ile apaintzaileak: Mikel Jaimerena, Maite Jaimerena eta Haizea Errandonea. Astero egiten dituzten lanorduetatik kanpo eta doan, baliabide gutxi dutenei ilea apaintzen hasi ziren duela hilabete batzuk, eta oso pozik daude egitasmoarekin. «Hemengo jendeari esker hainbertze urtez bizitzen, bururatu zitzaigun zerbait egitea hori orekatzeko. Egun dugun momentu txarra dela eta, gaizki pasatzen ari den jendea laguntzea egoki iruditu zitzaigun», dio Mikel Jaimerenak. Ehun urte baino gehiago darama ile apaindegiak lanean Elizondoko Santiago kalean. Baztandarrei esker ona adierazteko modua ere bada egitasmoa.

Une txarra arindu

Bidelagun Baztan haranean, eta Bortzirriak eta Malerreka eskualdeetan behartsuenekin eta zaharrekin lanean aritzen den elkartearen bidez etortzen zaizkie bezeroak. Hilero, lehenengo asteartean, ematen dute zerbitzua. Ile apaindegia ixten dutenean, arratsaldeko zortzietan, beste bi orduz, hamarrak arte, aritzen dira lanean. Pertsona horiek ile apaindegiko zerbitzu guztiak eskura izaten dituzte. Hilean bospasei lagun hartzen dituzte. «Bertze edozein bezero bezala hartzen ditugu, eta nahi duten hura egiten diegu», dio Jaimerenak. Nahi duenak ilea moztu, moztuko diote; kolorea eman nahi duenak kolorea emanen diote; orrazteko beharra duenak, horixe eginen diote. «Pasatzen ari diren momentu txar hori arintzeko eta pixka bat alaitzeko modua izaten ahal da ile apaindegitik guapo-guapo ateratzea».

Mikel Jaimerenarentzat elkartasuna eta maitasuna adierazteko modu bat da eskaintza. «Laguntza emateko modu bat da, zerbait emozionala, laguntza emanez ongi sentitu nahi dugu. Hilabeteen bi ordu gehiago aritzea bertzerik ez da. Horrekin laguntzen ahal badugu eta jendea pixka bat alaituago ikusi, satisfazio bat da», jakinarazi du.

Isidro Herguedas da Bidelagun elkartean aritzen diren 65 boluntarioetako bat. Baztanen ere krisia nabaritzen ari dela dio. «Badira familia osoak lanik gabe. Aita eta ama lanik gabe, eta hiru seme-alabekin, sarrerarik gabe, oso gauza triste da». Nafarroako Gobernuak gizarte zerbitzuetan egindako murrizketak, gainera, orain arte duin bizi zen jende asko

beharrean utzi duela dio: Baztango herrietakoak zein etorkinak, denetarik. Halere, gaizkien dabilzanak etorkinak direla azpimarratu du. «Okarren etorkinak ari dira pasatzen; lehenak izan dira lanik gabe gelditzen».

Ile apaindegiko zerbitzuaren erabiltzaileekin hitz egin nahi izan arren, ez dute mintzatu nahi izan, gaizki dabilzala onartzea gogorra egiten zaielako. «Ez dute bizi dutena kontatu nahi. Lotsa ematen die duten egoera makurra onartzea», dio Herguedasek.

Diario de Noticias.

Los colectivos de servicios sociales de Baztan denuncian su delicada situación por los recortes

ven un negro futuro por falta de ayudas y retraso en percibir las cada vez más escasas que se conceden

lander santamaría - Sábado, 1 de Diciembre de 2012 - Actualizado a las 05:15h



elizondo. Las organizaciones y colectivos de voluntarios que trabajan en el Valle de Baztan en el campo de los servicios sociales denunciaron ayer la delicada situación en la que se encuentran, incluso con riesgo de verse obligados a paralizar su actividad o desaparecer, por los graves efectos que se vienen derivando de los recortes en las ayudas institucionales. Representantes de nueve organismos y la concejal de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Baztan comparecieron ayer para explicar el alcance de la reducción de subvenciones y los problemas que se derivan para las áreas de salud, tercera edad, educación y prestaciones sociales en general.

La asociación Tasubinsa, que mantiene un taller de integración en el barrio de Berro de Elizondo, está recibiendo ayudas con "gran retraso, en algunos casos incluso de seis meses" y en parecida situación se encuentra Cocemfe, la coordinadora navarra de ayuda a afectados por discapacidad física u orgánica que se ha visto obligada a reducir sus trabajadores contratados de cuatro a uno y espaciar la atención a cada uno de los municipios en los que presta su labor. La asociación de mujeres voluntarias Eguzkiloire pasa también por dificultades y Xauli, un colectivo de ayuda y entretenimiento para afectados sensoriales, ha visto reducidas las ayudas, otras se reciben parcialmente y con retraso y temen verse abocados a interrumpir su actividad.

La asociación Bidelagun que trabaja el voluntariado en distintos sectores de Baztan y Malerreka afirma que "cada vez es más difícil acceder" a ayudas, que llegan con retrasos de "hasta 5 y 6 meses en algunos casos", además de que se han endurecido los requisitos. En Anasaps-Dizdira han sufrido recortes del 30%, han debido recurrir al Ayuntamiento de Doneztebe porque no les llegaba para pagar el alquiler de un local y han reducido su actividad a media jornada. En idéntico caso están Afina, Saharaztan y Anfas, y en general todos los colectivos se duelen de convocatorias de ayudas que han sido eliminadas o se convocan con mucho retraso, y el rechazo a peticiones de subsidio social mínimo o dependencia cuando no han sido eliminadas.